

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

#### Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

#### **Gasteizko Udalaren aldarnioak eta behin-behineko aldarnio eta hesietan aldi baterako publizitate-elementuak jartzea arautzeko ordenantzaren proiektuari behin-behineko onespena ematea**

Gasteizko Udalaren aldarnioak eta behin-behineko aldarnio eta hesietan aldi baterako publizitate-elementuak jartzea arautzeko ordenantzaren proiektuari behin-behineko onespena ematea erabaki zuen Gasteizko udalbatzak 2021eko urriaren 22ko ohiko bilkuran.

Udalbatzaren Araudi Organikoaren 203. artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarrien Legearren 49.b artikuluan xedatutakoaren ildotik, jakinarazten da dosierra jendaurrean jarrita dagoela, San Martineko udal bulegoetan —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 - 4. solairua—, iragarki-taulan eta Udalaren webgunean —esteka: [https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/was/contenidoAction.do?idioma=es&uid=u2a81b77f\\_175fddcad14\\_7eee](https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/was/contenidoAction.do?idioma=es&uid=u2a81b77f_175fddcad14_7eee) interesdunek oro izan dezaten aukera aztertzeko eta egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko, 30 egun balioduneko epean.

2022eko urtarrilaren 3an bukatuko da erakustaldia.

Baldin eta erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin-behinekoa zen erabakia behin betikotzat joko da, besterik gabe.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko urriaren 27an

*Alkate-lehendakaria*  
**GORKA URTARAN AGIRRE**